

75. zenbakia - 2008ko iraila

# artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

EMAKUMEZKOAK KONTXAN

] KETAREN DENBORALDI BERRIA  
TXAKOLINAREN UZTA BILKETA ]

Bela Eskola kolokan

**Kostabela**





**TXOKO**  
ERRETEGIA



kaia gainean. Tlf. 943 140 539

**OSTOLAZA**  
EDARITEGIA

**kaxuelitak eta plater konbinatuak**

Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

**Saiazgetaria**  
HOTELA

**BILERA GELA DAUKAGU**

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa

943 140 143  
943 140 345

info@saiazgetaria.com  
www.saiazgetaria.com

**SAN PRUDENCIO**  
**JATETXEA** **P\***  
JATETXEA - ERRETEGIA

20808 GETARIA  
(ERREPIDETIK 600 METRORA)  
IKUSPEGI BIKAINAK

943 14 06 27 - 943 14 04 11

**OSTOLAZA**  
**ANAIAK**

Tailer mekanikoa.  
Soldadura eta kaldereria.

Txoritonpe industri gunea, 20.  
lonja, portua z/g  
20808 Getaria  
Tel.: 943 140 110

**kutxa**



*Antxoak eta Bakailaoa*

**ITSAS**  
**MENDI**

www.maisor.com

*gutiziak*

Kaia, z/g • Tel. 943 140 993 • GETARIA  
Eusko Gudari, 5 • Tel. 943 248 774 • ORIO

**B A B E X A**

Getariako dendari elkartea



**ENBATA**


Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797



**ELKANO**

*Jatetxea*

Herrerieta, 2  
Telefonoak: 943 14 00 24  
943 14 06 14  
20808 GETARIA




**POLITENA**

GURE BEREZITASUNAK:

- Aste egunean:  
Eguneko Menua
- Jai egun eta Asteburuetan:  
Luxuko Pintxoak,  
Bokatak eta Razioak.
- Eramateko eskaerak:
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA  
Kale Nagusia, 9  
Tel. 943 140 113



**ERROTA**

OPIL - OKINDEGIA  
Elkano, 7  
Tel.: 943 140 017



**KAIÀ - KAÏPE** JATETXEA

General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)  
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com



**INDAUX**

Tel.: (+34) 943 899 100 Fax: (+34) 943 899 101 indaux@indaux.com  
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA  
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com





artzape  
75. zenbakia  
**2008ko**  
iraila



】5/Inkesta:

Eguraldiaren gorabeherak

】6-7/Getarian zer berri?

Txakolinaren uzta bilketa  
KETaren denboraldi berria

】8-9/Elkarrizketa: Salvador Manterola

】10-11/Elkarrizketa: Aitor Emazabel

】12 -13/Argazkien Txokoa: Kultur Aniztasunaren Astea

】14-15/Elkarrizketa: Zumaia-Getariako arraunlariak

】20/Historiaren katebegiak:

**Erromatar ohiturak Getarian**

】19/Petrilaren harrirateetik

】23/Akordatzen: *Frontoia*

**artzape**

Eskualtxeta kulturgunea  
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48  
artzape@topagunea.com



Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkieta, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Kepa Iribar, Imanol Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika [kolaboratzaileak] Xabier Alberdi eta Suso Perez [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1.200 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X



Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

# ] gutunak

GETARIA TXUKUN ETA GARBI

**E**guna joan eta eguna etorri,jai eta aste,"pelikula" berdina ikusten dugu gure kaleetan.Eguna argitu orduko,herri-langileak buru belarri has-ten dira kaleak garbitzen:Pipa azalak non-nahi,"txutxeria"poltsak lurrean dantzan,paperak paretetan itsatsita,txakur kakak galtzada erdian...Dena ondo txukundu ondoren, herri-langileak beste zereginetan ahalegintzen dira eguerdiko ordubiak ingururarte.

Baina ze gertatzen da ondoren?

Sinestezina badirudi ere, berriro pipa azalak,"txutxe"poltsak,paretetan pape-  
rak,txakur kakak...,hor azaltzen dira bata bestearen atzetik gure kaleak zikin-  
tzen.

Guztion artean gure herria txukun eta garbi matentzeko ahalegina guztion bete beharra dela iruditzen zait eta ez herri-  
langileena bakarrik.

Aurrerantzean horrela izango delakoan agur bat herritar guztioi.

Gaizka Ezenarro Uzin

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

## Zorte on Azpeitian!

Azkeneko hiruzpalau urtetan Artzape aldizkarian tarteka kolaboratu duen Aitor Emazabel Azpeitira joan zaigu apaiz lanak egitera. Artzapeko lan taldeak eskerrak eman nahi dizkiogu eta... zorte on azpeitia-  
rrekin!

Artzape



General Arnao, 15

### HILERO PROMOZIOAK

- ✓ URRIA - Peeling korporala
- ✓ AZAROA - Aurpegiko tratamenduak

Interesatuz gero, informatu zaitzke telefono hontara deituz:

943 14 05 33

**GIROA** TABERNA

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxo goxoen aukera

Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

**HARRALDE**  
**GETARIA** NAGUSIA.17  
☎ 14 07 04



# inkesta

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika ]

**Etengabe entzuten ditugu aldaketa klimatikoaren inguruko berriak eta oharrak. Eguraldia bera ere gero eta arraroagoa eta aldakorragoa dagoela aipatzen dute askok. Zer iritzi duzu honen inguruan? Irudikatzen diguten bezain larria ote da egoera? Neurri eraginkorrek hartzen ari direla iruditzen al zaizu?**



**Iosu Aranguren**

Nire ustez arazoak badu bere larritasuna. Izan ere, eguraldia adibidez gero eta arraroago dagoela iruditzen zait: udan gero eta temperatura baxuagoak egiten ditu, eta negua eta udazkena aldiz gero eta beroagoak dira. Kotxeak ere gero eta gehiago erabiltzen ditugu, eta gero eta kotxe gehiago daude zirkulazioan, eta horrek ere arazoa larriagotu egiten du. Nik uste honen aurrean ez dela neurri eraginkorrik hartzen; asko hitz egiten dela baina gero berdin-berdin kutsatzen dugula iruditzen zait.

Oso gai serioa dela iruditzen zait, eta ondorioz normala da telebista eta komunikabideetan hainbesteko oihartzuna izatea. Egun, gero eta teknologia garatuagoa daukagu eskura eta denok a la ultima nahi dugu egon gai hauetan. Horrek guztiak energia kontsumoa eta kutsadura areagotzen ditu, arazo handia sortuz. Neurriak hartzen hastekotan, enpresa handitan hasi beharko litzateke, halako guneak baitira kutsadura maila handiena dutenak, gehien eragiten dutenak. Gure artean ez dut neurri askorik ikusten, egia esan. Ordu aldaketarekin adibidez, energia aurrezten dela esan ohi da, eta honek ere zerbaiterako balioko duela iruditzen zait. Kotxe berriak ere, gero eta kontsumo baxuagokoak egiten ari dira, eta hau ere neurri ona izan daiteke.



**Esperanza Kerejeta**

Arazoa egon badago, eta nik gehienbat eguraldiaren gaiarekin nabaritzen dut. Garai batean, urtarok ongi baino hobeto desberdintzen ziren: udaberria udaberria zen, negua negua, ... Orain berriz, eguraldi aldaketa asko eta handiekin egiten dugu topo. Ez da garai haietako eguraldia bezala. Egun, urtarok ez dira bereizten, eguraldi aldakorra eta aurreikusiten zaila dena egiten baitu.

## Artzapetik begira



**Ane Azkue**

### Konpartsa mistoa?

Arrazoi askotakoak izan daitezke herri bakoitzean egiten diren konpartsak, baina beti ere helburu jakin batekin. Getariako konpartsa behintzat, munduko hainbat lekutako musikarekin dantza egitean oinarritzen da. Bi urtean behin Salvatore Deunaren Eguneko memento garrantzitsu bat izatera iritsi da, eta hilabete batzuek lehenago ere indako haziak fruitua ematen dute, lore-hostoz betetako arrosa bailira. Arrosa bat ordea ez da benetakoa arantzarik ez badu, eta konpartsa honek badu bere arantzatxo. Betikoa da, betiko prototipoen barruan bizitzen jarraitzen dugu; garunaren ordeaz adreilu laukizuzen bat dugula ematen du. Udalak antolatzen duen ekimen honek, bikotea neska-mutilez osatutakoa izan behar duela eskatzen du, beraz, bi neskek ezin dute bikote moduan parte hartu, ezta bi mutilek ere, horrela nahi izanez gero behintzat. Ohikoena ordea, mutilak falta izatea da, eta bikoterik ez duenari (bikoteak mistoa izan behar du, nahitaez) ukatu egiten zaio konpartsan dantzan ateratzeko aukera, beraz, pisu osoa konpartsa sexu simetriak du. Nahiago inguruko herrietako mutilak aurkitu, koreografia perfektua atera dadin. Baina koreografia bat beti moldatu daiteke dagoenaren arabera, helburua garbi edukiz gero behintzat; herrikoia, freskoa, inprobisatua... adinari, sexuari, tamainari, klase sozialari eta abarri garrantzarik eman gabe. Kontuak kontu, zer lortu nahi den jakitea eta gogoia dira faktore garrantzitsuenak. Honen harira, herriko jaiak pasatu eta handik hilabete eta pixka batera, Zumaiako Olarro Egunean, Andaluziako erritmoekin konpartsa bera dantzan ikusteko aukera izan zen Erribera kalean zehar eta hara non eta hara zer, eta hiru neska bikoterik gabe dantzan!!! Baina posible al da hori? Posible? noski dela posible, koreografia moldatu eta kito. Alde batetik poza, eta bestetik amorrua. Herritik kanpo herrian ukatzen dena emateko prest?

## Ikasturte berria abian

Gogotsu eman diote hasiera Iturzaeta Herri Eskolako ikasle eta irakasleek 2008/09 ikasturteari. Irailaren 10ean ekin zioten lanari 208 ikaslek, horietatik 20 aurten matrikulatu dira 2 urteko gelan.



Lehen egunean haurrei ongi-etorria ematen.

## KETA bigarren denboraldiari begira

Irailaren erdialdean ekin zion 2008/09ko denboraldiari Keta futbol taldeak. Taldeak ez du aldaketa gehiegirik izan; zuzendaritza taldean lehendakaria Jose Roman Aranguren da, lehendakariordea Emidio, idazkaria Eugenio Uranga eta diruzaina Mari Nieves Garmendia. Entrenatzaile Adolfo Etxebarria eta Paxo izango dira, Iñigo Caballero zarautzarrarekin batera. Masailaria Soiartze San Sebastian izango da. Aurpegi berriez gainera, aurreko denboraldia bukatu zuten jokalariek guztiek jarraituko dute, Ion Zabaletak izan ezik. Entrenamenduak Orioko Mendibeltz zelaian egingo dituzte, herrian ez baitago futbol zelairik.



Denboraldia ezin hobeto hasi dute KETAkoek.

## Kalitate oneko muztioa, aurten

Irailaren 24an hasi ziren mahats zale gehientsuenak uzta biltzen eta hala jardungo dute 20 egunez. Ruth Mozo Getariako Txakolineko arduradunaren esanetan, "kalitate oneko" mahatsa da aurtengoa, eta "kantitatez iaz baino gehiago" izango da. Aurten eguraldia ez dute aldeko izan, baina txakolin zaleak kontu handiarekin ibili dira, kalitate ona lortuz.

## Elkanori buruzko antzerkia

Datorren urtean Getariaren 800. urteurrenko ospakizunak direla-eta, Elkanori buruzko antzerkia egingo da, Aitzpea Goenagak idatzitako gidoian oinarrituta. Antzerkian parte hartu nahi duten guztientzako doako taillerak antolatu ditu Udalak. Izen-ematea azaroan izango da, eta entseguak, aldiz, urtarrilean hasiko dira.

Bestalde, urteurrenko ospakizunen barruan, lehorreratzearen egunean herria apaintzeko jarriko diren estandarteak egiteko joste eta pintura taillerak ere antolatu ditu Udalak, horiek ere doan.



Elkanori buruzko antzerkia izango da.





## Getariako konpartsa Zumaiako kaleetan

Salbatore jaietan parte hartu zuten Getariako Konpartsako kideak Zumaian izan ziren Olarro Egunean *Alandalus* ikuskizunarekin. Ekitaldia gauzaldia izan zen, ikusle gainezka zeuden kaleetan barrena, eta herrian bezala, Zumaian ere arrakasta handia izan zuten dantzariak.



Zorionak dantzari guztiei!



Zumaian izandako dantza emanaldiaren hainbat irudi.

## Urteroko legez, Erniora!

Berrogei bat lagun animatu ziren urtero Gure Txeru Elkarteak antolatzen duen Erniorako irteerara. Horietai sei oinez abiatu ziren Getariatik, eta besteek, aldiz, Andazarretatik gora oinez. Iaz bezala, giro apartaz gozatu ahal izan zuten.



Zelatunen zelaian indarberritzen.

EAEko airearen %93,78 kalitate onekoa edo onargarria da, eta txarreko, berriz, %1,07. 2007ko datuak Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearen bitartez lortu dira.

Ingurumeneko Europako Agentziak uda honetan egin duen azken azterketaren arabera, errepide bidezko garraioa da oraindik EB osoan kutsatzaile kaltegarrien iturri nagusia. EAE ez da salbuespena; EAEn, garraioak sortzen du gero berotegi-efektua eragiten duten gasen isuri guztien laurdena; horrez gain, bigarrena da isurietan, energiaren sektorearen atzetik.

Airearen kalitatea kontrolatzeko euskal sarea 68 estazio finko, 4 mugikor eta 2 meteorologia-estazio daude; hau da, neurketak egiteko puntu bat 30.000 biztanleko. Hori dela eta, gainditu egiten da EBaren betekizuna: 250.000 biztanleko kontrol-estazio bat edukitzea.

Kontrol-estazioek hainbat neurketa egiteko aukera ematen duten: herrialdera sartzen den mugaz gaindiko kutsadura, baldintza naturaletako airearen kalitatea eta hiriguneetako kutsadura... Estazio mugikorrek, berriz, kokapen berriak izan daitezkeenak eta egoeraren araberrako kutsadura aztertzen dituzte. Gainera, ohiko kutsatzaileen, konposatu organiko lurrunkorrak edo metal astunak neurtzen dituzte, besteak beste. Eta industria kutsatzaile nagusien (altzairu-fabrika, industria termikoa, kimikoa edo gas-planta) tximinietan jarritako isuriaren sentsoerek beren jardueretarako ezarrita dauden legezko mugak ez gainditzea zaintzen dute.

Europako Zuzentarauak markatzen dituen kutsatzaileak neurtzen ditu: nagusiki, sufre oxidoa, nitrogeno oxidoak, troposferako ozonoa, karbono monoxidoa eta partikula esekiak. Gainera, meteorologia-parametroak neurtzen dira: hala nola, haizearen abiadura eta norabidea, tenperatura, hezetasun erlatiboa, presioa, erradiazioa eta prezipitazioa.


Informazio gehiago:  
Tel.: 943 896024  
[www.urolakosta.org](http://www.urolakosta.org)  
[maizpuru@getaria.org](mailto:maizpuru@getaria.org)

# Kostabela

**Duela lau urte egin genion Salba Manterolari elkarrizketa; orduetik hona, hamaika gauza pasa dira guztion bizitzan, baina tamalez, ez da hori Getariako Bela Eskolaren kasua; edo hobeto esanda, egoera zerbait aldatu zaie, baina okerrera.**

**Duela lau urte egin zitzaion elkarrizketa hartan, zera salatzen zuen Salbak: “Gutxienekoa emango zitzaigula esan ziguten, eta ez daukagu ez aldagaririk, ez dutxaririk, ez komunik. Klub xumea eta egoera txarrean dagoena gurea da bentajan”.**

**Duela bi aste egin diogu elkarrizketa Salbari, eta egun Kostabelak bizi duen egoera larria azaldu digu:**



## **Zein da egungo Kostabelako egoera?**

Larria, erabat.

## **Zein da arazoa?**

Begira, gutxi gorabehera duela hamar bat urte guraso batzuen artean Kostabela sortu genuen, ilusio handiaren; baina, noski, bela itsasoan egiten da, eta horrek gutxieneko instalazio batzuk izatea eskatzen du. Baina tamalez, denbora aurrera doa eta lehengo egoera berean gaude: hesiz inguratutako pare bat kaxetetan, ez aldagaririk, ez komunik, ez dutxarrik... Hainbat lekutara jo dugu istorio honekin, baina moila Puertosen da, eta hemen pasa ezin

dugun muga batekin egiten dugu topo, instalazioa egin beharreko lekua beraiena baita.

## **Zer motatako muga?**

Iazko azarotik Puertosi bilera eske gabiltza, bai Kostabelatik, baita Gipuzkoako Bela Federaziotik, baina ez digute erantzun ere egiten; abuztuan ere beste bilera bat eskatu genuen, erantzunik gabe oraingoz. Guk bilera eskatzen dugu soilik, hitz egiteko, eta iruditzen zait gutxienez erantzun egin beharko luketela, errespetu falta ikaragarria dago. Pentsatu nahi dut Puertoseko zuzendariaren gauza pertsonala dela, ez erantzute-

ari ez baitiot zentzurik hartzen. Alkatea asko laguntzen ari zaigu, baina berak ere oraingoz ez du lortu bilera bat egitea; horixe da larriena, hitz egiteko eseri ere ezin garela egin.

## **Zergatik dela usten duzu?**

Ez dakit, ezin dut ulertu; nik dakidana da duela 4 urte bezala gaudela, edo okerrago, erreta baikaude, ilusioa galduta. Ez dugu zertan horrela ibili behar, Getariak hori baino gehiago merezi du eta. Gainera, legea eskutan hartuta, obligazioa dute hori egiteko, edozein kirol laguntzeko; beteko balitz! Horrelako gauzak instituzioen babesa





## “Getarian harro izan beharko genuke itsas kirola aurrera eraman ahal izatea”

beharko lukete; “hor goian” kategoría gutxiko jendea dagoela iruditzen zait, gutxienez, gizalegez, erantzun egin beharko lukete, edo bestela, esan dezatela Getarian ez dutela Bela Eskolarik nahi. Nire ustetan moila itsasontzien aparkaleku moduan daukate, dirua ateratzeko soilik; hortik aurrera, mutilneska kokorrei itsasoa zer den erakutsi, arrantza, itsas kirolak... Dena galtzen ari da: itsas kultura galtzen ari gara.

### Aurtengo udan ez da antolatatu Bela ikastarorik?

Ez, ez baitugu betetzen higie-ne minimo batzuk, eta baldintza horietan ezin da klaserik eman; gainera, ez dugu zertan horrela ibili, ezta nahi ere. Alderantziz ibili beharko genuke: hasieran instalazioak jarri, eta gero guri deitu lana egiteko. Getarian harro izan beharko genuke itsas kirola aurrera eraman ahal izatea.

Pentsa, barnealdeko, Kantabriako...

edozein txokotan, alde ederra

ken-tzen digute instalazio

aldetik...

### Instalazioen proiektua egin duzue?

Hiru bat proiektu eginda ditugu, guztiak moila inguruan; alkateari guztiak erakutsi zaizkio, eta gustukoak ditu. Kofradiak ere ez digu inoiz oztoporik jarri, bela asuntoarekin beti lagun izan dugu. Tamalez, Puertosen agintzen duenak ez du nahi hitz egin, ez dago borondate-rik: lotsagarria eta salatze-ko gauza da.

### Hondarribia, Donostia, Mutriku... arazo bera al daukate?

Bai, arazo bera dute; adibidez, Txinako olinpiadetan belan zilarrezko domina irabazi dutenek, Ikerrek eta Xabik, Hondarribiatik alde egin behar izan zuten, ez baitzuten txalupa gordetzeko instalazio egokirik.

### Gazteak heltzeko alternatiba bat litzateke bela ikastea?

Kirolak oro har gazteak kateatzeko balio du, gazteak heldu egin behar dira nola hala. Gure helburua, bela irakasteaz gain, bela gizarteratzea dugu, “pijotismo” hori kendu; baina horretarako gauza minimoak eskaini behar dira, bela ezagutarazteko erraztasunak eman.

### Elkanoren herria bela eskolarik gabe geldituko ote da?

Elkanon herrian Bela Eskola bat badago, derrigor egon behar duen leku batean, eta hala jarraitzea nahiko nuke!



Moila gainean kaxetak, ontziak, aulkiak...



Arranpala egin zuten, baina maiz irristakorra egoten da.



Erabiltzen diren ontziak moila bazterrean aparkatuta.



# Aitor Emazabel



Datorren urriaren 13an zazpi urte beteko lituzke Aitor Emazabelek Getariako erretore lanetan, baina irailaren 6az geroztik, Azpeitiko parrokiari arituko da. Hemendik aurrera Aitor Emazabal hondarribiarrak utzitako hutsunea Rafael Eizagirre zarauztarrak beteko du. Irailaren 6an apaiz aldatuta ekitaldia ospatu zen, eta bezperan, Aitor agurtzeko parrokiak luntxa eskaini zuen herritar guztiarentzat.

Aitor Emazabel 1999an apaiztu zen, San Pedro egunean; Zumaian urtebetez diakono izan zen eta apaiztutakoan ere bertan jarraitu zuen bi urtez. Handik Getariara pasa zen, Zumaiko eta inguruko lanak utzi gabe.

**Orain Azpeitira zoaz, dena berria izango duzu; gogoan al duzu zer topatu zenuen Getariara etorri zinenean?**

Batez ere parrokiari normal bat, baina bestalde, Getariara etortzea niretzat nire iturrietara, sustraietara itzultzea bezala izan zen, Hondarribian baino are gehiago gainera, hemen moilako bizitza begi aurrean baitago.

**Zumaia etorri zinen, Don**

**Iñaki jubilatu zenean; aldatuta handia izan al zen?** Zumaian apaiz lagunkidea izatetik hemen bikario izatera pasatu nintzen, horrek dakarren mentalitate aldaketarekin, erantzukizuna norberak baitu azken kasuan.

**Aldaketak zergatik izaten dira?**

Batzuetan norberak proposatzen ditu, eta bestetan, proposamen horiek etorri egiten dira (nire kasuan bezala);

azken horiei ezetz esateko ganorazko zerbait izan behar du. Berez leku baterako izendapena jasotzean, 6 urterako kargua izan ohi da; garai batean ez, baina orain bai. Izan ere, apaizgoa gero eta urriagoa da, eta gainera gero eta zaharragoa; beraz, gazteei dagokigu mugitzea. Adibidez, Gipuzkoan ez da apaiz berririk izango datozen 6 urtetan.

**Beraz, gutxi gorabehera 6**



**urte barru lekuz aldatzen bazaituzte, berriro lehen izandako herri batera bidali al zaitzakete?**

Noizbait gertatu da, baina oso arraroa izan ohi da.

**Azpeitiko parrokiara zoaz, bikario lanetara?**

Bertako kargu egitera noa beste apaiz batekin batera, Segundo Aizpurukin batera.

**Apaiz lagunkide moduan?**

Ez da ez apaiz lagunkidea, ezta parrokoa ere, baizik eta figura berri bat: bi apaiz, biak parroko izanik, berdintasunean parroki bateko ardura hartzen dute; berez biak dira parroko, erantzukizuna biena da, nahiz eta horietako bat moderatzaile moduan agertu ohi den (paper kontuak errazagoak izan daitezten). Berez, apaiz talde bat egitea bezala izango litzateke, maila berean, erantzukizuna biena izanik.

**Azpeitia herri handiagoa izanik, bertigo pixka bat emango dizu, ezta?**

Udan Azpeitiko parrokia bisitatzera joan nintzen, eta izugarria iruditu zitzaidan, baita eliza bezala ere; Getariakoa bilduagoa da, bertatik ber-

tara, gertutasuna sortzen du.

**Getariarron ezaugarri bat aipatzekotan zer esango zenuke?**

Getariarrek gauzak aurrez aurre esaten dituztela.

**Fededunak al gara?**

Ez gara burbuila batean bizi, eta Euskal Herriari buruz esan daitekeen gauza bera esan daiteke Getariari buruz ere: tradizioz fededunak gara, baina errealitatean adin batek aurrerakoak dira benetan fededunak, beste adin batzuetan, tamalez, momentu puntualetan bakarrik.

**Zazpi urte ostean, zer balantze egiten duzu?**


Esperientzia erabat baikorra izan dela, betegarria; oroitza-pen oso onak eramango ditut.

**Esperientzia horretan, zerekin geldituko zinateke?**

Ez daukan parrokia monumentalarekin, ez den herri zoragarriarekin, baizik eta jendearekin gelditzen naiz.

**Penarik?**

Bai, baina disimulatzen saiatzen naiz; baina beno, banekien noizbait gertatu zitekeela...



Salbatore elizaren atarian.


“Oroitza-pen oso onak eramango ditut”



Alondegian jende ugari elkartu zen parrokiak herritarrei eskainitako luntxan.



Amaia Iribar eta Mainer Ostolaza



# Kultur Aniztasunaren Astea



Urtero bezala, Getariako Udalak, ELAN-Euskadik eta Getarian bizi diren etorkinek antolatuta, Kultur Aniztasunaren Astea ospatu zen irailaren 22tik 28ra.

Hainbat ekitaldiz gozatu ahal izan dugu aurten, besteak beste: bertako etorkinek lagunduta hainbat kulturetako sukaldaritza ikastaroa Arrantza Zaharren Elkartean, Markos Nanclaresen eskainitako "Migrazioak eta hezkuntza" hitzaldia, Petr Zelenkak zuzenduriko "Rik D'Ábla 88" minutuko film txekiarraren emanaldia, Jose Antonio Lizarrabek, Klaudio Iribarrek eta Jose Agustin Larrañagak "Zer eta nola egiten dugu integratzen ez direnekin?" eskainitako hitzaldia, Henna-tatuajeen tailerra, te dastaketa, jaima erakustaldia, Senegal-Getaria arteko futbol partida, Sanegaleko jakien dastaketa eta musika Diug-diug taldearekin, haurren marrazki eta eskulanean tailerra eta erakusketa Barbara Stammel eta Manuel Fernandezekin eta Jon Iriarteren "Urrun bizi" argazki erakusketa.





Argazkia: UDALA



Argazkia: UDALA



Argazkia: UDALA



Argazkia: UDALA



# Zumaia-Getaria taldeko getariarrekin hitzordua



Duela mende bat, beharbada, ez zuten pentsatuko egunen batean Kontxako badian emakumezkoek arraunean jardungo zutenik; eta hala izan da: aurten, lehen aldiz, Kontxako Emakumezkoen I. Bandera jokatu da Donostiako uretan.

Zumaiako eta Getariako arraunlariek osatutako Esperantza trainerua ere bertan aritu da lehian, Euskal Herriko, Kantabriako, Galiziako eta Kataluniako beste zazpi ontzirekin batera. Kontxako estropadaz gain Expoko estropadan eta Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketan ere parte hartu dute.

Zumaia-Getaria taldeko kideetatik sei Getariako Arraun Elkartekoak dira, eta besteak Zumaiakoak. Duela hamaika hilabete hasi ziren denboraldia prestatzen Jabier Etxaberen agindupean, eta emaitzak ezin hobekak izan dira. Horri guztiari buruz hitz egiteko traineruan ibili diren hiru getariarrekin elkartu gara: Ane Balentziaga, Nekane Arakistain eta Eneida Etxabe.

## Lehen aldia al da Getarian emakumezkoen trainerua ateratzen dela?

Duela pare bat urte, gutxi gorabehera, Urola-Kosta trainerua atera zen, Orio, Getaria eta Zumaiako arraunlariekin osatuta. Txingudiko Bandera jokatu zuten, eta harrezkero, ez da gehiago atera.

## Duela hamaika hilabete ekin zenioten denboraldia prestatzeari; pozik al zaudete lortutako emaitzekin?

Bateletan otsailaren erdialdean hasi ginen, eta ez ginen

ongi ibili; maiatzean trainerilletan jardun genuen, eta Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak lortu genituen. Traineruarekin Gipuzkoako Txapelketa irabazi genuen, eta Euskadikoa Hondarribiak irabazi arren, guri zegokigun

baliza urrutiago zegoelako, eta bertan behera gelditu zen. Kontxakoan, berriz, hirugarren gelditu gara, eta gustura.

## Entrenamendu asko egin al dituzue?

Getarian egin ditugu, beti ere

uretan: bat izan ezik, asteko beste egun guztietan entrenatu dugu.

## Traineruan hasi zinetenean, zein zen helburua?

Hasieran esan ziguten Gipuzkoako Txa-





Sailkapen probako hainbat irudi: beroketak egiten, “Esperantz” traineruaren inguruan elkar animatzen eta estropada hasitako une bat.

pelketa irabazten zuen taldea, zuzenean Kontxara sailkatuko zela, eta Galiziako, Kantabriako eta Bizkaiko beste traineru banarekin lehiatuko zela. Zumaia-Getaria taldeak irabazi zuenez, eta ez hondarri-biarrak, gauzak aldatu egin ziren...

**Kontxarako sailkapen proban 23 segundoko alde atera zenioten bigarrenari; ikaragarria, ezta?**

Haizearen eraginez zegoen itsasoa ikusita, arraun egiteko lehen kalea suertatu, urduritasuna... beroketak egiten ari ginela gaizki pasa genuen; baina azkenean, dena ongi atera zen, eta oso gustura gelditu ginen egindako lanarekin. Gozatu egin genuen, eta gainera ondo gindoazela ikustean, are gehiago; izan ere, atzetik bazoaz, pentsatzeko denbora gehiago ematen du, eta gehiago kostatzen da.

**Espero al zenuten horrenbeste jende gertura-**

**tzea estropada ikustera?**

Guk gurasoak, lagunak eta norbait gehiago joango zela pentsatzen genuen, baina ez han zegoen jendetza joango zenik inolaz ere: kanpora atera ginenean, zenbat jende zegoen ikustean...

**Gizonezkoen sailkapen proba telebistan bota ohi dute; emakumezkoena, zer?**

Ez zen telebistatu, eta pena da, zeren lehen aldia zen emakumezkoak Kontxan irteten zirela, eta horrek badu garrantzia... Eta gainera zegoen itsasoarekin, ikusteko oso polita izan zen...

**Igandeko estropadan hirugarren egin zenuten; emaitzarekin gustura?**

Oso gustura; hasieran gure helburua sailkatzea zen, eta oso ongi atera zen guztia, baina igandean horrek presio gehiago izatea suposatu zuen. Ez ginen oso txukun atera, baina hala ere estropadan ondo joan ginen, ongi eutsi genion. Gainera, itsasoak hobera egin zuen, eta jakinik Astilleroko neskek eta galiziarrek izugarritzko indarra dutela, bagenekien zaila geneukala; hala ere, entrenatzaileak zera esan digu: guk indar gutxiago dugula, baina teknika gehiago dugula, eta itsaso txarrekin hori demostratu genuen.



Lanak ongi eginda, altxerrira iristean.



Txalo zaparrada ederra jaso zuten “Esperantzako” arraunlariak.

**Zer moduzko esperientzia izan da oro har traineruan jardutea?**

Ona, nahiz eta uda pixka bat gogorra izan den!

**Datorren denboraldian, jarraitzeko asmoarekin?**

Zaila ikusten dugu; asko gus-

tatu behar zaizu arrauna hor jarduteko, denbora asko kentzen baitu... Gure ustetan gizonezkoek motibazio gehiago dute.

Zorionak Zumaia-Getariako arraunlari guztiei!



# artzape

## IRAILEKO GALDERA:

Zer izen du erromatar teilez osatutako teilatuak?

Artzapen bazkidea bazara eta erantzuna baldin bada-kizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), gutunez (kale nagusia 1-3 z/g) edo deitu (943 000 548) URRIAREN 23a BAINO LEHEN.

## UZTAILEKO IRABAZLEA:

**Karmele Iribar**

Saria: Hiru botilako Larchago ardo kaxa bat.



Garbiñe Ibarbia Gamboa  
Colegiado N° 5158/158

- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa

Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

Hortz Klinika  
Argidental S.L.

Dr. J.L. Soulier

- Odontologia
- Periodontzia
- Endodontzia
- Inplantologia
- Prebentzioa
- Erreabilitazioa
- Hortz estetika
- Protesiak

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea  
clinicadentalsoulier@ifonegocio.com

20800 ZARAUTZ  
T.: 943 130 278

**LAISTER**  
PVC leihoak

HERMET  
10

Tel./Faxa: 943 13 22 03  
Tel.: 943 83 49 25

**aranola**  
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41  
Fax.: 943 14 02 86

**aranola**

San Prudentzia auzoa  
telefonoa: 943 14 00 67  
Mugikorra: 669 258 061  
faxa: 943 14 05 44

20808  
GETARIA

Xabin Etxea  
LANDA ETXEA - JATETXEA

Amaia Lazkano  
Miren Lazkano

Taberna

**Mayflower**  
Erretegia

katrapona, 4  
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

**Eugenio Uranga**  
Aseguru Artekaria

Herrerieta, 12  
20808 GETARIA  
Tel.: 943 140 120  
faxa: 943 140 604  
Mobila: 652 775 061  
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

Udal aterpetxea.  
Ingurugiro eskola.

**ASKIZU**

Erreserbak: 943 833 641  
Etxe osoa: 200 €/eguna  
Asteburua: 320 €  
Askizu auzoa z/g 20808 Getaria - Gipuzkoa



## Denboraren Bankua martxan da Gipuzkoako hainbat herritan

Italian sortu zen fenomeno hau pixkanaka Europa guztian zabaltzen ari da. Denboraren Bankoa edo "Banco del Tiempo" deritzona gaztelaniaz, elkartruke solidario bat da. Ez du inork ezer kobratzen, batzuetan laguntza ematen da, eta bestetan, laguntza jaso.

Elkarteko kide guztiek 20 ordu balio duen txeke antzeko bat jasotzen dute. Izena eman aurretik, elkarrizketa txiki bat egiten da, eta hor definitzen dira pertsona hori zertan den trebea: ordenagailuak konpontzen, internet nola erabili erakusten, ile-apainketan edo eta hirugarren adineko pertsonak zaintzen.

Zerbitzua doakoa da, eta batzuetan zerbitzua jaso eta bestetan eman egiten da. Kide

bakoitzak beste kideen izen eta telefonoak ditu, eta baita kide bakoitzak zer alorretan eskaintzen duen zerbitzua ere.

Ez dago zerbitzurik bestea baino gehiago balio duenik, izan ere, kooperatiba bat bezala funtzionatzen du, eta bakoitzak gehien dakien eremutan eskaintzen ditu bere zerbitzuak. Gaiak edozein motatakoak izan daitezke: ile-apainketa, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza, josten ikastea, komunak desataskatzea, eta abar luze bat.

Gipuzkoako kasuan, adibidez, Deba bailaran badago talde bat Auzopolis izenekoak, eta Donostian ere martxan da. Horrekin elkarkidetzeta eta solidaritate balioak bultzatu nahi dira. Auzopolisteko

kideen artean, jubilatuek, abokatuak, kazetariak, psikologoak, etxeko-andreak eta abar daude, eta gainera adin guztietakoak, hori ez baita muga: talde horretan 26 urtetik 70 urte bitarteko kideak daude.

Badira egin ezin diren gauzak: ITV pasatzera beste batek eramatea kotxea... Hori bai, zerbitzua eskaintzerako orduan, gastuak sortzen badira, adibidez materiala erostean edota gasolina gastatzean, gastu horiek zerbitzuaren onuradunak ordaintzen ditu



### Ekaitz Balenciaga Iribar

PROIEKTU ETA ERREFORMAK |  
GREMIOEN KOORDINAZIOA

943 005 861  
635 757 820

### Getariako Txakolina



DENOMINACION DE ORIGEN

Aldamar Parkea, 4  
TEI: 943 14 03 23 Faxa: 943 89 60 30  
20808 GETARIA

AGERRE	ARREGI	GAINTZA	TALAI-BERRI
AIZPURUA	BASA-LORE	GAÑETA	TXOMIN ETXAN
AKARREGI-TXIKI	EIZAGUIRRE	REZABAL	ULACIA
AMEZTOI	ETXETXO	SANTARBA	ZUDUGARAI

[www.getaraiakotxakolina.com/Info@getaraiakotxakolina.com](http://www.getaraiakotxakolina.com/Info@getaraiakotxakolina.com)



**IRIZABAL, S.A.**  
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

### Astillero

ANTONIA IRIBAR

Erretegia  
Parrilan  
espezialitatea



koia, 1  
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12



## R-publi-K

Sarri, gainerakoak baino argiagoak, progreagoak bagina bezala jokatzeko dugula konturatuta nago. Norbera hobereana, garatuena dela sinetsita, beste kultura, bizimodu nahiz gizarte antolaketa ereduak kritikatu eta barregarri utzi nahi izaten ditugu.

Islamistak gogor salatzen ditugu, emakumearen aurka duten jarrera lotsagarriagatik: zapia erabiltzea, gizonaren mende bizi behar izatea, etxea, haurren zaintza eta senarrari plazerra ematera mugatuz beren eginkizunak...

Afrikako tribuen kontu ere barre ugari egin ohi dugu: beraien erritual inozoak, fede zentzugabea, janzkera xelebreak edo naturarekin duten lotura estua medio, tximinoak bailitza ikusten eta tratatzen ditugu, algara artean.

Gertuago, euskal kultura eta jendearekiko irainak ere ugari izaten ari dira: baserritar txapela dela, usadio zaharrak direla, trikitixa, euskararen erabilera eta gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak...

Guztiei ere, goitik behera, Erdi Arokoak bailiran begiratu ohi diegu, txinatar esaera jakintsu batetaz ahanztuta: "Besteak kritikatu eta mundua aldatzeari ekin aurretik, eman hiru itzuli zure etxean".

Horrela, bertako kide izatera behartzen nauen estatuko akatsak hamarnaka neur ditzaket, guztietatik ordea bat iruditzen zait ulergaitzena: Monarkia. Erregea ikusten dudana aldiro, galdera berdinekin inguratzen naute: Zein funtzio betetzen du? Zer lan egiten du? XXI. mendean zer zentzu du figura horrek? Zein fundamentutan oinarritzen da? Zergatik sinestarazi nahi zaigu beharrezkoa eta naturala dela?

Galdera hauen inguruan, erantzun ugari entzun izan ditut eta aldiro are okerrago geratu izan naiz: egonkortasuna ematen duela aipatzen dute batzuek; estatuko pertsona garrantzitsuena dela besteek; zaila bezain ezinbesteko lana egiten duela; beragatik ez balitz, Francok euskaldun guztiok amai-

tuko zuela...

Bera bitartean, "lanean gogor" batetik bestera dabil: lunchak, inaugurazioak, ospakizunak, oporrak, olinpiadak,... eta salbuespen gutxi batzuk kenduta, joaten den lekuetan txalo eta laudorio artean hartzen dute. Bere txiste, gaizki ulertu eta pasadizo inozoak medio, pertsonaia maitatua da. Ezer egin gabe, langile jendearen kontura ederki bizi den arren, herritarrek miretsi egiten dute. Sinesgaitza benetan. Oparitzen diogun dirutzarekin zenbat gauza egin genitzakeen pentsatzen jarritz gero...

Alderik ilunena ordea, bere jatorrian datza. Izan ere, herriak era askean aukeratutako ereduaren aurka altxatu eta odolaren bidez nagusitu zen diktadore txikiaren inposaketa bat besterik ez da. Gehienok gogoratu nahi ez dugun garai eta mugimendu baten jarraipena burutzeko konfiantzazko gizona. Dena aldatuko zela esan, baina ezer aldatu ez zela eta denak esku beretan jarraitu zuela erakusten duen beste adibide bat. Frankismoa eta monarkia, biak elkarren eskutik...

Ez zait iruditzen beraz, besteei barre egiteko egoeran gaude. Ba ote norbere zapaltzailea gurtzen duena baino gizarte atzerakoi eta tristeagorik? Era berean, ezin gara gure arazo, miseria guztien errua besteei botatzen ibili. Denok egin dugu noizbait barre bere pasadizoren batekin. Arazoa beraz, gure baitan, etxean bertan dugu: inozokeria eta jarrera falta. Ezjakintasunaren, apologia eguneroko egin dugu.

Zorionez, oraindik ere dena galduta ez dagoela gogorarazten diguten duintasunez zipriztindutako ahotsak entzun ahal dira, sasi-komunikabide eta sasi-politikariak isiltzen direnean. Lehenik erasotuak, borrokatzera behartuak, torturatuak, erailak nahiz atzerriratuak izan zirenen eta ondoren, ahaztuak, umilatuak, baztertuak eta erasotzaileen mende bizitzera kondenatuak izan zirenen ahots larri bezain garbia. Urteak pasa arren, inoiz garaituak izan ez zirenen, direnen oihua: "Ez dira pasako! Altxa herri langilea! GORA ERREPUBLIKA!"



# BARRIGUITAS

**Z**azpi edo zortzi urte izango zituen. Goizean jaiki eta amari kiroletako zapatilak janzteko erregutzen zion. Segituan puskatzen zituen. Zer esaten dut puskatu, txikitu egiten zituen. Eta adidas txandala, albo bakoitzean hiru marra zituena, Arkonadaren elastikoa bezala.

Bere logelako hormak zituen tarte guztiak futboleko posterrez josita zeuden: Kortabarría eta Iribarrek Atotxan ikurrina atera zutenekoa, Satrusek gola sartu eta ukabila gora zuela irudikatzen zuena, Arkonada "hegan" egiten...

Derrepente batean gosaldutako kolakao eta maria gailetak, katilua arraskan utzi, eta amari musurik eman gabe, etxeko atea danbateko batez ixten zuen, gero eskailerak bosnaka edo seinaka jaisteko, arrapalada batean. Frontoira heldu nahi zuen, segundo bat bera ere galdu gabe, hura baitzen bere "Maracana",

bere "Atotxa" berezia. Ez zuen besterik buruan: baloia, baloia eta baloia.

Abendu hartan lehenengo ebaluaketako notak eraman zituen etxera. Nahiko nota onak, arazorik ez zuen ikasketetan. Baina informearen oinean ohartxo zegoen idatzita: Mutilezkoen artean bakarrik egiten ditu lagunak, oso matxista da. Ama, kezkatuta, andereñorekin hitz egitera joan zen: beste bi anai zituela, etxean bera zela emakumezko bakarra, baina hala ere beti defendatu zituela emakumezkoak, feministetan feministenak adina. Andereñok ederki zekien esaten zion guztia egia zela, txikitatik ezagutzen baitzuten elkar. Amak semearen jarrera aldatuko zuela zin egin zion irakasleari, egoskorrean inork ez baitzion irabaziko.

Etorri ziren etxe hartara erregeak, mutilak begiratu zuen bere zapatilan, opari artean "reglamentuzko" baloia aur-

kitzeko esperantzan. Eta ttak, a ze irribarrea, belarritik belarrirainokoa, adidas baloia pentagono beltz-zuriduna, realeko jokalariek Atotxako belar hezean erabiltzen zuten huraxe bera. Baina bazegoen bere alboan beste oparixko bat. Zer ote zen paper koloredunak estaltzen zuen opari misteriozua? Papera tris-tras batean puskatu eta argazkian hartzekoa izan zen bere aurpegia: panpin txiki bat zen, pottolita samarra, eskimalen arropa zuena. Barriguitas eskimal.

Hurrengo urteko erregetan, Barriguitas afrikarra (beltza); hurrengoan Barriguitas txinatarra; bestean Barriguitas mexikarra, suitzarra, arabiarra... horrela 22 urte egin zituen arte. Arrazoi zuen, bai, amak: egoskorrean ez zion inork irabaziko, ez horixe!

Ikastolako 8. mailako ikasketak mutil bakarrarekin egin zituen, 12 edo 13 neskaren artean. Institutuan 5 mutil bakarrik ziren 24ko taldean. Unibertsitatean bera zen gelako mutil bakarra 64ren artean. Eta orain lanean, beste 11 emakumerekin osa-

tzen du Haur Hezkuntzako irakasle taldea. A, eta ikasleek andereño deitzen diote.

Nota haietan idatzitako esaldia burdin gori-goriz markatuta geratu zaio azalean, zinez gorroto baititu emakumezkoak jo eta hiltzen dituzten gizatxarrak, bortxatzaileak, Vatikanoa eta, oro har, emakumezkoak berdintasunez tratatzen ez dituzten guztiak. Batzuetan bere burua gizonezko izateagatik gorrotatzeraino.

Horregatik guztiagatik, irailako bigarren asteburuan Donostiako badian jokatu ziren estropada historikoan, lehenengo aldiz emakumezkoak traineru barruan tira eta tira ikusteak izugarritzeko poza eragin zion. Iaz aldizkari honetan, herriko traineruaren izena aldatzeko eskatu zuen; aurten bere hitzak jan eta Getariako esperantza emakumezkoak direla garbi dauka. Eta ez hori bakarrik: beretzat emakumezkoen I. Kontxako Ikurrinaren txapeldunak getariarrak dira, estropada horietan ohikoa baita bi egunetako denborak kontuan hartzea. Zorionak NESKAK!





4

## ERROMATAR OHITURAK GETARIAN

Erromatar garaiaz aritzean maiz pelikuletan ikusi izan ditugun topikoak etortzen zaizkigu burura. Pentsatu ohi dugu pelikuletako erromatar tipiko-topiko horien erara biziko zirela garai haietako gure arbasoak, toga, sandalia eta buruko kasko lumadun eta guzti. Benetan harritzekoa da azken hamar-hamabost urteetan erromatarrek Euskal Herrian izandako presentzia izan dugun irudipen aldaketa. XX. mendeko 80ko eta 90.eko hamarkadetan burututako ikerketa arkeologikoei esker gure herrian izandako erromatar presentziaren berri izaten hasi aurretik, ukatu egiten zen Gipuzkoa edo Bizkaian erromatarkuntzak eragina izan zuenik. Egun ordea, erromatarkuntzaren berri ematen duten aurkikuntza arkeologikoak burutu direlarik, ez du inork presentzia hori ukatzen. Are gehiago, jende askok uste du erromatarkuntzak gure herrian izan zituen ezaugarriak pelikuletan ikus ditzakegunen berdinak direla. Dena dela kezagarriena zera da: gure herriko Antzin Aroari buruzko ikerketa historiko arkeologikoak burutzen ari diren zenbaitek erabiltzen dituztela aipatutako topiko horiek garai hartako ezaugarriak deskribatzeko.


Zarautz Jauregian burututako indusketan erromatar kultura eta ohiturek orduko Gipuzkoako kostaldean izan zuten eraginaren berri jakiteko datu ugari aurkitu dira. Lehenik eta behin zera aldarrikatu behar da: erromatar kultura eta ohituren eragina benetan handia eta sakona izan bazen ere, ezin daitezkeela inondik inora ere onartu erromatarrei buruzko topikazoak hura deskribatzera. Agian adibide bat izango da egokiena ideia hau behar bezala azaltzeko: orduko biztanleen etxeen ezaugarriak. Indusketa hauetan ikusi denez, erromatar garaian egungo Getaria den honetan bizi zirenak ez ziren Europako mediterraniar aldeko edozein lekutan ikus ditzakegun erromatar etxe tipiko-topiko horietan bizi. Zurezko egitura garrantzi-

tsua zuten etxeak ziren, zumitzez eta buztinez eraikitako barruko hormekin. Dena den, bazituzten, noski, erromatar kutsuko eraikuntza elementuak, aipatze-koak direlarik, besteak beste, "tegula" izeneko erromatar teilez osatutako teilatuak.

Erromatar ohiturek hemengo biztanleen artean izandako eragin handiaren erakusle nagusia, ordea, indusketan bildutako material arkeologikoak dira; hau da, orduko biztanleek erabiltzen zituzten gailu, erreminta, ontzi eta abarren zatiak eta hondarrak. Materialen artean ugariena orduko zeramikazko ontzien zatiak dira, etxeko eta eguneroko ohituren erakusle garrantzitsuak direnak, izan ere jangarriak eta edariak gordetzeko, sukaldean aritzeko eta otorduetan erabiltzen ziren ontzien gehiengoa zeramika edo lurrezkoak baitziren. Zeramikazko edo

lurrezko ontzi horiek kanpotik ekarritakoak ziren, gehienak Akitania ingurutik, eta erromatar kutsukoak dira denak.

Aipagarria da, batetik erromatar sukaldaritzak hemengo biztanleen artean izandako eragina. Horren erakusle dira indusketan bildutako sutarako ontzi motak eta batez ere saltsak prestatzeko erabiltzen ziren mortairuen zati ugariak (kontuan izan behar da erromatar sukaldaritzan saltsen prestatetak eta erabilpenak berebiziko garrantzia zutela). Bestetik, aipagarriak dira otorduetako ohitura erromatarren zabalkundearen berri ematen diguten ontzi zati ugariak. Zarautz Jauregiko indusketan mota askotako katilu, platera, kopa moduko edalontzi, beirazko edalontzi, txarro eta abarren zati ugari aurkitu dira, hemengo artean ohitura horiek izandako eraginaren erakusle direnak.






## Baratxuri zopa

<i>Osagaiak:</i>	<i>Egiteko era</i>
Zopako ogi bat	Olioa bota, baratxuri burua 4 minutuan piperminarekin frijitu kolorea hartu arte; behin kolorea hartutakoan, ogia bota, arrautza bota eta nahastu; litro bat ur gehitu eta ordu eta erdian egiten utzi.
Arrautza bat	ON EGIN!
Gatza	Xabier "Paollas"ek emandako errezeta.
4 koilarakada olio	Eskerrik asko.
2 baratxuri buru	
Pipermina	



## Kasandra lehoian

*Idazlea:* JFito Rodríguez  
(Gasteiz, 1955)  
*Argitaletxea:* Elkar  
*Argitalpen urtea:* 2006  
*Orri kopurua:* 183



Zinemaren munduan sartzen gaitu Fito Rodríguezek argitaratu zuen liburu honek. Lan honekin Joseba Laka V. Literatur Saria irabazi zuen, baina baditu beste lan interesgarri batzuk ere: Faustoren itzala edo Jeu de Paume, besteak beste.

Lan honetako protagonistak Kasandra eta Ihardets dira. Horiek Paristik Islamabadeko hegaldia egiteko asmoa dute, baina aurreikusi gabeko geldialdi bat dela- eta, orduak igaro beharko dituzte Erromako aireportuan. Geldialdiaren ezinegona eta urduritasunak baztertzeko, ezagunak zaizkien filmei buruz hitz egiten dute.

Idazleak lan hau hiru zatitan

bereizten duela esan genetzake, baina hiru zatiak osotasunean hartzea komeni da lanaren zentzua behar bezala ulertzeko. Liburua azkar eta erraz irakurtzen da, eta, lan hau dela bide, filosofia eta asperdura bat ez datozela frogatu nahi zaigu.

Oso lan ona da, eta zinema euskal literaturan gutxi landua izanik, gauza interesgarriak dakarzkigu Fitok. Zinema eta filmak errealitatearekin uztartu nahi izan ditu, hau da, filmetako gertakizun eta pasadizoek bizitzaren gakoei helduko die: zorientasuna, biolentzia, askatasuna, heriotza... gaitzat hartuta, zinemaz eta, zehazki, filmei buruz asko ikasiko dugu. Lan berezia, baina interesgarria.

# ] urriko agenda

[Urriaren 15a, asteazkena]  
ODOL-EMATEA  
Noiz: 19:00etatik 21:00etara  
Non:  
Getariako Osasun Zentroan  
Antolatzailea:  
Gure Txeru Elkarte

[Urriaren 19a, igandea]  
PINTURA EGUNA  
Noiz: 10:00etatik 12:00etara  
Antolatzailea:  
Guraso Elkarte

## ] Irteerak

[Urriaren 5a, igandea]  
KILOMETROAK 2008 Irura  
Irurara joateko AUTOBUSA  
Izen-ematea: urriak 3,  
ostirala (13:00ak baino lehen)  
Non: EKAIN dendan

[Urriaren 9a, osteguna]  
ALDEANUEVA DE EBROra  
IRTEERA: ardo bodega bat  
bisitatu eta bertan hamaiketa-  
koa egin, herria bisitatu eta  
"Venecia" jatetxean bazkaria  
eta ondoren dantzaldia  
Irteera-ordua: 08:00etan  
Antolatzailea:  
Arrantzale Zaharren elkarte

[Urriaren 19a, igandea]  
NAFARROA OINEZ 2008  
Iruñea  
Vianara AUTOBUSA  
Izen-ematea: urriak 17,  
ostirala (13:00ak baino lehen)  
Non: EKAIN dendan

[Urriaren 26a, igandea]  
MENDI IRTEERA URBIARA  
(Egun pasa)  
Antolatzailea: Gure Txeru

## ] Hitzaldiak

[Urriaren 16a, osteguna]  
"EZAGUTU EZAZU  
GETARIAKO  
ADINEKO  
PERTSONEN  
EGUNEKO ZENTROA"  
Noiz: 18:00etan  
Non:  
Getariako Eguneko Zentroan  
\* Aurretik izena eman behar  
da

[Urriaren 21a, asteartea]  
"BULARREKO MINBIZIA"  
Hizlaria: Lourdes Aritxiturri  
(KATXALIN: Bularreko eta  
ginekologiako minbiziagatik  
eragindako emakumeen  
elkartera)  
Noiz: 19:00etan  
Non: Alondegian

## ] Kirola

KIROLDEGIKO  
ESKAINZA  
Haurrentzat:  
GYN-JAZZ, JUDO  
Gazte eta helduentzat:  
AEROBIC, SPINNING,  
GIMNASIA, PILATES,  
YOGA, CAPOEIRA,  
KARATE, KRAV-MAGA,  
FITNESS, KARDIO-MAKI-  
NAK, SQUASHA, FRON-  
TOIA, SAUNA, LURRUN-  
GELA, HIDROMASAJEA  
ETA MASAJEA  
Hasiera: urrian  
Izen-ematea eta informazioa:  
943 140432 –  
kirolgune@hotmail.com

GETARIAKO VI. GAZTE  
ETA HELDUEN ESKUZ  
BINAKAKO PILOTA TXA-  
PELKETA federatu gabeen-  
tzat  
Hasiera: urrian  
Antolatzailea:  
Gure Txeru Elkarte

[Urriaren 11a eta 12an]  
GAZTETETAPEKO V. SURF  
TXAPELKETA HERRIKOIA  
Mailak: 12 urte azpikoak, 16  
urte azpikoak, open, neskek,  
longboard, master, 14 urte  
azpiko paipo, open paipo.  
Hasiera-ordua: 09:00etan  
Izen-ematea: urriak 6tik  
10era, 18:00etatik aurrera  
Non: Gaztetapeko lokal  
berrian  
Inskripzioa: 5 €  
Antolatzailea: Getariako  
Gaztetape Surf Elkarte  
Oharra: 12 urtetik behera-  
koak hondartzaren egoeraren  
arabera hartuko dute parte  
\* Partehartzaile guztientzat  
bokatak eta edariak

banatuko dira

## ] Gaztelekua GAZTEAK ERE IRAKASLE

Noiz:  
Urriaren 4a, larunbata:  
XAKE IKASTAROA  
Urriaren 11a, larunbata:  
XAKE IKASTAROA  
Urriaren 12a, igandea:  
HARRI BITXIEKIN PITXIAK  
Urriaren 18a, larunbata:  
XAKE IKASTAROA  
Urriaren 19a, igandea:  
DEKORAZIO IRUDIAK  
(plastilinarekin)  
Urriaren 25a, larunbata:  
XAKE TXAPELKETA  
Urriaren 26a, igandea:  
XAKE TXAPELKETA  
Urriaren 31a, ostirala:  
GAZTELEKUA DEKORATU

BAZKARIA: Salvatore  
Mitxelena ikastolan ibilitako  
1968ko kintokoen bazkaria  
Izen ematea: Iribar Jatetxean,  
urriaren 6a baino lehen.  
Izena ematerakoan 20€ utzi  
behar da

## ] Musika Eskola

TAILERRAK ETA  
MUSIKA TRESNAK  
Informazioa eta izen-ematea:  
Getariako "J. S. Elcano"  
Musika Eskolan

## ] Ikastaroak

UDALAK  
ANTOLATUTAKOAK:  
EUSKARA IKASTAROA,  
BERTSO ESKOLA,  
LITERATUR LANTEGIA,  
ANTZERKI TAILERRA,  
ESTANDARTEAK EGITEKO  
JOSTE ETA PINTURA TAI-  
LERRA, PINTURA TAILE-  
RRA,  
TXISTUA ETA ATABALA,

GURE TXERU ELKAR-  
TEAK ANTOLATUTA-  
KOAK:

PILOTA,  
EUSKAL DANTZAK ETA  
ESKULANAK

### ANTZERKI TAILERRA

#### ELKANORI BURUZKO ANTZERKIA!!!

Getariaren 800. urteu-  
rreneko ospakizunak  
direla eta, 2009an Elka-  
nori buruzko antzerki  
bat egingo da

Tailerrean parte hartzeko

Izen-ematea:

azaroa bitartean

Ikastaroa doan izango da

Entsaioak:

urtarriletik aurrera

### Telefono interesgarriak


Udal bulegoa ....943 896 024  
Faxa .....943 140 190  
e-mail: [udala@getaria.org](mailto:udala@getaria.org)  
Kiroldegia .....943 140 432  
Kiro-portua .....943 580 959  
Taxiak  
Segundo .....607 720 242  
Jose Mari ....607 403 498  
Udaltzaingoa ....943 896 146  
Liburutegia .....943 896 147  
Anbulatorioa ....943 140 653  
Botika .....943 140 441  
Herri Eskola.....943 140 729  
SOSdeiak .....112  
Kofradia.....943 140 200

artzape aldizkaria  
943 000 548  
[artzape@topagunea.com](mailto:artzape@topagunea.com)

FULDAIN farmaziaren zain-  
tza egunak: irailaren 29tik  
urriaren 6ra (biak barne)



## Frontoia



Santi "Kukuluk" utzitako argazkia.

Argazki zahar honetan garai bateko frontoia ikus dezakegu. Ia frontoiaren inguru guztia zuhaitzez josia zegoen, eta segur aski, garai hartako haurrak, egungoak bezala, nahiko jolastuko ziren. Gaur egungoak pilota, futbola, patinak, bizikleta... izaten dituzte jolaserako; baina, zer jolasetan arituko ote ziren argazkian ageri diren haurrak? Jakin ezazu! baina ziur argazkia ateratako egun horretan arratsalde entretenitua pasa zutela argazki kamerari begira.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu, deitu 943000548 telefonora edo [artzape@topagunea.com](mailto:artzape@topagunea.com) helbidera bidali.

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK



## zorion agurrak



**Onditz Goikoetxea**  
Urriak 27  
Pentagramako goiko  
DO-ra iritsi zara.  
Animo!



**Julen Aldekoa**  
Urriak 17  
Zorionak eteko denen  
partetik. Ondo pasa zure  
urtebetetze eguna.



**Gorka Lekubide**  
Abuztuak 3  
Berandu bada ere,  
zorionak etkeoen  
partetik



**Ibai Iribar**  
Irailak 29  
Zorionak eteko denen  
partetik. Ondo pasa zure  
urtebetetze eguna.



**Unai Chamizo**  
Abuztuak 29  
Zorionak zure familiaren  
partetik. Muxu handi bat.



**Amets Etxabe**  
Urriak 10  
Zorionak eta muxu bat  
zuretzat. Artzapeko taldea.



**Izaskun Larrañaga eta Irantzu Ezenarro**  
Irailak 22 eta urriak 4  
Zorionak eta muxu erraldoi bana bio!!!  
Datorren bileran postrea zuen kontu.  
Artzapeko lan-taldearen partetik.



**Maite Berasaluze**  
Irailak 20  
Zorionak familia guztiaren partetik. Pastak  
eta kafearen zain gaude. Muxu handi bat!

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

# artzape



EGUN

ZAIJTEZ

HARRI DEEDUN



Bazkide-kuota: urtean 18 euro

Izen-deiturak:.....  
Helbidea:.....  
Herria:.....P.K.....Telefonoa:.....  
Kontu zenbakia (20 zenbaki) .....  
Sukurtsala.....

Sinadura: \_\_\_\_\_

Getariatik kanpo bizi bazara eta aldizkaria etxean jaso nahi baduzu,  
bidali zure helbidea eta bidaliko dizugu!